

Usurbilgo Udala

## 2019KO MAIATZAREN 23AN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

#### Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka  
Xuban Zubiria Elexpe  
Jone Urdampilleta Urdampilleta  
Iñaki Ugarte Agirre  
Irene Gartzia Palacios  
Miren Josune Estella Arranz  
Jose Mari Iribar Zapirain  
Josune Urkola Larrarte  
Andoni Atxega San Sebastian  
Carlos Perez Fraisoli  
Fermin Orue-Echevarria Iturri

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Ezin-etorria adierazi du: Mirari Azurmendi Sorazu.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2019ko maiatzaren 23an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

#### **1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA: 2019/04/30EKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2019ko apirilaren 30eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

#### **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019KO APIRILAREN 24TIK MAIATZAREN 16RA (2019/0390-2019/0448)**



Usurbilgo Udala

Alkatetzak 2019ko apirilaren 24tik maiatzaren 16ra bitartean (2019/0390–2019/0448) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### **3.- 2019. URTEKO PLANTILLA ORGANIKOAREN ALDAKETA.**

Alaitz Aizpuruak hitza hartu du puntu honi buruzko azalpenak emateko.

Bai Plantilla Organikoa bai Lanpostuen Zerrenda normalean aurrekontuekin batera urte bukaeran onartzen dituztela adierazi du, eta aurten ere horrela egin dutela baina orain aldaketa bat egitea proposatzen dela gaineratu du. Jarraian, aldaketaren arrazoiaren berri eman du eta zehaztu du udal honetan bazeudela funtzionario izaera ez zuten lanpostu batzuk eta horiek birsaikatu egingo direla laboral izaeratik funtzionario izaerara pasatuz.

Gaineratu du birsaikapen hori egin ondoren, udaleko langile guztiak funtzionario izaera izango dutela Oinarrizko Lanbide Heziketako irakasle eta koordinatzaileak izan ezik.

Batzarkideek, Pertsonalگو batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“2019ko Plantilla Organikoa 2018ko abenduaren 20ko ezohiko udalbatzan onartu zen. Ondoren, erreklamaziorik egon ez zenez, behin betikoz 2019ko otsailaren 26ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Kiroldegiko bi langile laboralak (kirol teknikaria eta kiroldegiko instalazioen irautzailea) aurten jubilatzen direnez, Udaleko beste plaza guztiak bezala funtzionarioetan sortu dira.

Gaia 2019ko maiatzaren 8an egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz onartua gelditu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpuru Labaka, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Fermin Orue Echeverria.

- Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte.

Beraz, hau guztia kontutan harturik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

### **E R A B A K I A**

LEHENENGO: 2019ko lanpostuen zerrendan proposatutako aldaketak sartzea.

BIGARREN: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea.”



Usurbilgo Udala

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

#### **4.- 2019. URTEKO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA.**

Batzarkideek, Pertsonalگو batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“2019ko Lanpostuen zerrenda 2018ko abenduaren 20ko udalbatzan onartu zen. Ondoren, 2019ko otsailaren 26ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Kiroldegiko bi langile laboralak (kirol teknikaria eta kiroldegiko instalazioen irauntzailea) aurtin jubilatzen direnez, Udaleko beste plaza guztiak bezala funtzionarioetan sortu dira, gerora postu laboralak iraungitzeko.

Lanpostuen zerrenda apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. eta hurrengoetan eta uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari Buruzko 6/1989 Legeak 13. artikulua eta hurrengoetan arautzen da. Dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Dena den, egintza administratiboa den heinean, argitaratzea informazioa emateko helburuarekin egiten da eta hortaz, indarrean egongo da, Udalbatzaren erabakitik.

Gaia 2019ko maiatzaren 8an egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz ONARTUA gelditu da, hurrengo bozkek eman direlarik:

- Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Fermin Orue Echeverria.

- Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte.

Beraz, hau guztia kontutan harturik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

### **ERABAKIA**

LEHENENGO: 2019ko Lanpostuen Zerrendan proposatutako aldaketak sartzea.

BIGARREN: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea.”



Usurbilgo Udala

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

## **5.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA USURBILGO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, MENDEKOTASUN PRESTAZIO EKONOMIKOAK JASOTZEN DITUZTEN HERRITARREK JASOTAKO ZAINZAREN KALITATEAREN ALDIKO JARRAIPENA EGITEKO.**

Jone Urdanpilletak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

Bi urte badirela dio Foru Aldundia gai honekin hasi zela eta gaiak ibilbide luzea egin duela esan du, besteak beste, Udal batzuek alegazioak aurkeztu baitzituzten Foru Aldundiak udalen esku ez zuelako prestazio ekonomiko nahikoa jartzen. Azkenean, alegazio horiek onartu eta Foru Aldundiak konpentsazio ekonomiko bat ematen die Udalei zaintza edo kontrol horiengatik.

Orain, Foru Aldundiak oinarrizko gizarte zerbitzuei mandatu bat eman diela adierazi du laguntza pertsonaleko prestazio ekonomikoa eta zaintzaren kalitatearen jarraipena egiteko eta hori eskuartean duten hitzarmenean jasotzen dela zehaztu du.

Jarraian, hitzarmenaren zehaztapenak azaldu ditu.


Batzarkideek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuak Batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

### **“1.- AURREKARIAK**

Gipuzkoan mendekotasun prestazioen inguruan indarrean dagoen araudiak ezartzen du Foru Aldundiak udalen bitartez egingo dituela prestazioen titularrak jasotako zainketen kalitatearen aldiak jasotzeko jarraipenak, betiere udalen ordezkariarekin nahikoa izango den finantzaketa aurretik adostuta.

2018ko abenduan Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Mahaiak kudeaketa emakidarako proposamen bat ontzat eman zuen, finantzaketa barne.

Joan den otsailaren 12an Diputatuen Foru Kontseiluak horrela egitea nahi luketen Udalekin sinatu beharreko hitzarmen eredia onartu zuen.



Usurbilgo Udala

Ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiak Udal eta Mankomunitate bakoitzari hitzarmen bat sinatzeko proposamena luzatu die, diktamen honi eransten zaiolarik.

Guzti hau kontutan izanik, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak 2019ko maiatzaren 15ean egindako ohiko bilkuran, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Irene Gartzia Palacios, Fermin Orue-Echeverria Iturri eta Josune Urkola Larrarte-ren aldeko botoekin, aho batez, proposatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** Mendekotasun prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten herritarrek jasotako zaintzaren kalitatearen aldiko jarraipena egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Usurbilgo Udalaren arteko hitzarmena onartzea, agiri honi eransten zaiolarik.

**Bigarrena:** Alkatea ahalmentzea hitzarmena sinatzeko.

**Hirugarrena:** Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak. 2019ko abenduaren 31 bitarteko indarraldia izango du.

**Laugarrena:** Hitzarmen hau urte natural bakoitzaren amaieran isilbidez luzatuta dagoela joko da, baldin eta Gipuzkoako Foru Aldundiak aurrekontu esleipen egokia badu hurrengo ekitaldirako. Hitzarmenaren eta horren luzapenen iraupena 8 urtekoa izango da gehienez.

**Bosgarrena:** Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.3.b artikuluan ezarritakoaren arabera hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**Seigarrena:** Erabaki honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Kontuhartzailletza sailari ematea.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## 6.- BURUNTZALDEAN BAZTERKERIA ARRISKUAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ETXEBIZITZA BABESTUETAN ALOJAMENDU-ZERBITZUAK EMATEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ALDAKETA ONARTZEA.

Jone Urdanpilletak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.



Usurbilgo Udala

Gogorarazi du 2018ko abenduko plenoan Buruntza-Beterriko sei udalerriek bazterketa egoeran zeuden pertsonen zuzendutako zerbitzua (etxebizitza) izendatzea adostu zutela. Bi pisu aukeratu zirela dio, bat Hernaniko Udalak jarriko zuena eta bestea Lasarte-Oriakoak. Erabaki hori sei udalerriek hainbat bilera politiko-tekniko egin ondoren hartu zela zehaztu du. Baina 5 udalerri hitzarmena plenoan onartu zuten arren, Lasarte-Oriak ez. Azken udal honek etxebizitza hori jartzeari erreparoa jarri dizkiola azaldu du eta beste bost udalerriei agindu die hitzarmenetik bere etxebizitza kendu eta hitzarmena aldatzeko, hori egin ezean beste bide batzuk hartuko dituztela esanez.

Hau guztia horrela, beste bost udalerriek ikusi dute hitzarmena aldatu egin behar dela. Ondorioz, erabaki dena da Lasarte-Oria udal sinatzaile bezala kentzea eta honek jartzen zuen etxebizitza baita ere, eta aldiz bigarren etxebizitza Andoainek jartzea, baina baldintzatuta. Hau da, Lasarte-Oriako udala hitzarmen honetara atxikituko balitz, Andoaingo etxebizitza kendu eta Lasarte-Oriakoa jarriko litzateke.

Batzarkideek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuak Batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

#### **“1.- AURREKARIAK**

2018ko abenduaren 13an ospatutako Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzordean informatu zen moduan, Gizarte-zerbitzuen mapa eta kartera dekretuari erantzunez, bazterkeri-egoeran dauden pertsonen zuzendutako zerbitzu (pisu) bat edukitzeko beharrari erantzun nahi zitzaion bailaran.

Emandako azalpenean bi pisu izango zirela azaldu zen, bat Hernanin eta bestea Lasarte-Orian. Erabiltzaileak egingo zuen gizarte inklusio prozesuan, lehenengo sei hilabeteak Hernanin kokatutako pisuan egingo zituen pertsonak eta bigarren sei hilabeteak Lasarte-Orian kokatutako pisuan.

2018ko azaroan mahai tekniko-politikoak egindako bileran Udal bakoitzak hitzarmena eta zerbitzuaren arautegia abenduko edo urtarrileko plenoetara eramango zuela adostu zen.

Buruntzaldea osatzen duten 6 udaletatik 5ek hori horrela gauzatu zuten; Lasarte Oriako Udalak, aldiz, alkateak sinatutako idatzi bat helerazi zuen beste 5 udalei hartutako akordioan atzera egitea eskatuz moldaketak egin nahi zituztela, argudiatuz.

Horren ostean apirilean bailarako ordezkari politikoek izandako bileran, eta moldatu beharrekoak moldatu eta adostu bitartean, behin behinean, Andoaingo Udalak programaren esku pisu bat jarriko zuela, adostu zen Lasarte-Oriako Udala hitzarmenera atxekitu bitarte.

Guzti honek hitzarmen berri bat osatu (aurrekoa moldatuz), onartu eta beste 5 Udalen artean, sinatzera eramaten du, non Lasarte-Oriako Udalak ez du parte hartzen.



Usurbilgo Udala

Guzti hau kontutan izanik, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak 2019ko maiatzaren 15ean egindako ohiko bilkuran, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Irene Gartzia Palacios, Fermin Orue-Echeverria Iturri eta Josune Urkola Larrarteren aldeko botoekin, aho batez, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** Buruntzaldean bazterkeriako arrisku egoeran dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitza-zerbitzuak emateko hitzarmenaren aldaketa onartzea, hitzarmen berria honi eranstean zaiolarik.

**Bigarrena:** Alkatea ahalmentzea Buruntzaldean bazterkeriako arrisku egoeran dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitza-zerbitzuak emateko hitzarmena sinatzeko.

**Hirugarrena:** Hitzarmenaren iraupena lau urtekoa izango da.

**Laugarrena:** Hitzarmen hau, izenpetzen den egunean sartuko da indarrean.

**Bosgarrena:** Erabaki honen berri Urnietako udalari, Hernaniko Zerbitzu Sozialei, Astigarragako udalari eta Andoaingo udalari ematea.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisola eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## 7.- USURBILGO II. ADIKZIOEN TOKIKO PLANA (2019-2023) ONARTZEA.

Jone Urdanpilletak gai honi buruzko azalpenak eman ditu.

Udal honek I. Adikzioen Tokiko Plana 2013-2017rako onartu zuela adierazi du. Oraingoa, berriz, 2019-2023 epealdirako izango dela eta Agipad enpresak garatu duela gaineratu du.

Jarraian, planaren helburuak zeintzuk diren eta izan duen ibilbidea ere azaldu ditu.

Planaren jarraipena egiteko gutxienez urtean behin bilduko den mahai bat osatzea aurreikusten dela esan du.



Usurbilgo Udala

Alkateak plan honek duen garrantzia azpimarratu du, izan ere herri bizitzan adikzioen eta orokorrean drogamenpekotasunaren arazoak benetan kezkatzen baitituzte. Behar-beharrezkoa dela ikusten dute denen indarrak batzea eta elkarlanetik aurre egitea. Planaren beraren diseinua oso garrantzitsua dela uste dute hainbat elkartek eta kolektibok parte hartu dutelako.

Josune Urkolak galdetu du ea plana bera web orrian dagoen.

Jone Urdanpilletak erantzun dio onartu ondoren jarriko dela.

Batzarkideek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuak Batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

#### **“1.- AURREKARIAK**

Tokiko Plana herri mailan droga-mendekotasunen aurrean eman diren erantzunaren oinarriak zeintzuk diren adierazten dituen irizpideez osatuta dago. Bere helburua sektore ezberdinen koordinazio eta planifikazioa da, mendekotasunei dagokienez, esku-hartzeetan eraginkortasun eta efizientzia indartu eta honek emaitza positiboak eman ditzan prebentzio arloan.

Beharrezkoa da ekintzak planifikatu eta programatzea inplikaturik dauden eragile guztiek jarrai ditzaten, herriak dituen behar eta zailtasunez egin daitekeen diagnostikotik haratago.

Herri mailako prebentzio plan bat edukitzeak herriari hauen aurrean ekitea errazten dio, badauden baliabideak koordinatu, ekintzak planifikatu, arlo ezberdinetako profesionalen planifikazioa erraztuz, plana droga-mendekotasunez haratago doazen mendekotasunen inguruko errealitate berriaren egokitzapena errazteko.

Hemen mahaigaineratzen denarekin aldatu edo hausnartu nahi diren errealitateak honakoak dira:

- Gazteek daukaten arrisku pertzepzio baxua, batez ere sozialki dagoen permisibitatea dela eta, batez ere alkohola eta kanabisari dagokionez. Bestalde, noizbehinkako kontsumoak, asteburuetan egiten direnak batez ere, inongo arriskurik ez dutela adierazten dute, azkenean kontrolatzen dutenaren sentsazioa izaten baitute.
- Helduek eta gizarteak duten arrisku pertzepzio baxua.
- Sustantziak eskuragarri daude.
- Jokaerazko adikzioen aurrean egiten den esku-hartzearen handitzea.





Usurbilgo Udala

Espainiako Udalerri eta Probintzien federazioak (FEMP), udalerrien planen lanketarako duen gidaliburuan (2001), mendekotasun plan batek honako hau ezartzen du:

- Tokiko korporaziotik bideratutako tresna bat da eta egiten diren ekintza eta programei egonkortasuna ematen die.
- Erantzuna ematen ahalegintzen garen beharrak ezartzeko erabilgarria izan behar zaigu plana, baita mendekotasunen fenomenoak aboratzeko jokabidezko printzipio orokor eta espezifikoak ezartzeko.
- Lanketaren hasierako fasetik, ahalik eta erakunde eta administrazio gehienek partehartzea bultzatu behar da, egoeraren analisi egoki bat egiteko.
- Mendekotasunen fenomeno integrala aboratzeko helburua izango dute planek.
- Egoera sozialari egokitzen den baliabide dinamiko bat izan behar du.
- Udalerrietako mendekotasunen planek tresna elkartuak izan behar dute. Maila desberdinetako mendekotasunei koherentzia emateko gai direnak.
- Prozesuaren eta emaitzen ebaluaketa jarraitua egitea beharrezkoa da.

Mendekotasunei dagokien arautegi-esparrua bete behar du mendekotasunen planak: nazioarteko arautegia, estatukoa, autonomikoa eta tokikoa. Horregatik, gure autonomia erkidegoko mendekotasunen planean azaltzen diren bide estrategikoak kontuan hartu behar ditu.

#### **Ezinbestekoak diren esku-hartzeko irizpideak:**

- Osotasuna
- Normalizazioa
- Diziplinartekoa
- Jasangarritasuna

#### **Hauek dira mendekotasunen prebentzioa lantzen duen Tokiko Plan batek ezinbestekoak dituen baldintzak:**

- Udaletxearen konpromiso politikoa.
- Udalerriaren eremu arduraduna zehaztu.
- Programa bultzatuko duten batzordeko arduradunak izendatu.
- Inplikaturako eragile sozial ezberdinekin koordinatu: Osasungintza, gazteria, hezkuntza, gizarte zerbitzuan, Ertzaintza eta komunitatea.
- Egoeraren diagnostiko bat egin

2013-2017 Mendekotasunen Prebentziorako Usurbilgo I. Udal plana amaiturik, Agipad enpresa izan da aipaturako aurrekariak kontutan izanda 2019-2023 Usurbilgo II. Adikzioen Tokiko Plana egin duen enpresa.



Usurbilgo Udala

Guzti hau kontutan izanik, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak 2019ko maiatzaren 15ean egindako ohiko bilkuran, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Irene Gartzia Palacios, Fermin Orue-Echeverria Iturri eta Josune Urkola Larrarte-ren aldeko botoekin, aho batez, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** Usurbilgo II. Adikzioen Tokiko Plana onartzea.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

### **8.- HAASETAKO A-96 (PORTALMUSU) ETA A-97 (KOMENTUA) EREMUEN HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENERAKO ALEGAZIOA ERANTZUTEA ETA BEHIN BETIKO ONARTZEA.**

Alkateak argitu du orain onartzera doazena Matiak Kalezarren komentu zaharrear sustatu nahi duen proiektuari behin betiko onarpena ematea dela.

Jarraian, puntu honetara nola iritsi diren laburtu du irizpenean jasotzen den moduan. Beraz, momentu honetan bere garaian onartu zen plan bereziaren aldaketa behin betikoz onartzeko moduan direla esan du eta gainera horretarako beharrezkoak diren dokumentu guztiak mahai gainean edukita.


Egun garrantzitsua dela azpimarratu du.

Batzarkideek, Hirigintza Batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2018-0641

### **AURREKARIAK**

Usurbilgo Udaleko Plenoak, 2010eko ekainaren 30ean, zera erabaki zuen: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetako Hiri Antolamenduko Plan Berezia behin betikoz onartzea.



Usurbilgo Udala

Erabaki hau eta Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ordenantza arautzaileak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 131. aldizkari ofizialean argitaratu ziren 2010eko uztailaren 13an.

### **PLAN BEREZIAREN ALDAKETA**

Geroztik, MATIA FUNDAZIOAK, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetako Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ALDAKETARAKO proposamena aurkeztu du Udalak onar dezan.

Alkatetzak, 2019ko otsailaren 21ean, 2019/0217 dekretuaren bitartez zera erabaki zuen hitzez hitz:

**LEHENDABIZI:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetako Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ALDAKETA hasieraz onartzea teknikariek zehaztutako baldintzekin:

- Udalak herritarren parte-hartzerako programa zehaztu beharko du.
- Aldaketa behin betikoz onartu aurretik, ingurumen-organoak ingurumen-txosten estrategikoan aipatutako zehaztapenak jaso beharko dira Plan berezian.

**BIGARRENA:** Behin dokumentazioa bi hizkuntzetan aurkeztu eta udal zerbitzu teknikoek ontzat eman ondoren, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak xedatzen duenaren arabera, espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuek dokumentua aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

**HIRUGARRENA:** Hiri Antolamenduko Plan Bereziak eragindako ondasunen eta eskubideen titularrei erabaki honen berri ematea.

Alkatetzak emandako dekretua kontutan izanik, Plan Bereziaren ALDAKETA jendaurrean jarri zen 20 lanegunez, ondoko iragarkiak argitaratuz:

- a) Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (42. zenbakia): 2019-03-01
- b) Gara: 2019-02-22
- c) Berria: 2019-02-22
- d) El Diario Vasco: 2019-02-26

Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren Aldaketa espedientea jendaurreko epealdian egon den bitartean, alegazio bat aurkeztu da:

Alegazioa zenbakia	Interesatua	Sarrera	
		Eguna	Zenbakia
1	Milagros Iribar Añorga	2019-03-27	1059



Usurbilgo Udala


## **ALEGAZIOA**

Milagros Iribar Añorga andereak 2019ko martxoaren 27an, 1059 sarrera zenbakiarekin aurkeztutako idatziak honela dio hitzez hitz:

### **A LA ATENCION DEL DEPARTAMENTO DE URBANISMO DEL AYUNTAMIENTO DE USURBIL**

Milagros Iribar Añorga con DNI 15961059 W y domicilio en Cs Txaparren-Berri 23 de Kalezar Auzoa, teléfono 669339493 con este escrito presenta las siguientes alegaciones al proyecto de Modificación del Plan Especial de Ordenación Urbana, ámbito "A.96/A.97 Miravalle".

1. En el plan Especial de Ordenación Urbana se establece que en la zona sureste de la parcela las alineaciones máximas permitidas en las dos plantas de sótano sobresalgan con respecto al resto de alineaciones. Vistas las secciones, parece que se prevé la realización de 2 "sótanos" en voladizo cuya altura con respecto a la cota de rasante en ese punto podría alcanzar entre 15 y 20 metros. Este cuerpo volado, en su parte más próxima a nuestra parcela, mantiene un retiro al límite de parcela de 2 metros, aproximadamente.
2. La envolvente máxima fijada en el Plan Especial permitiría edificar unos 18.700 m<sup>2</sup> t, frente a los 10.470 m<sup>2</sup> t permitidos. Esto nos indica que hay múltiples posibilidades para desarrollar una edificación cuya volumetría podría adaptarse de una manera más adecuada a la orografía de la parcela sin necesidad de presentar esa imagen de edificio-fuerte desde la carretera; es decir, dada la envolvente permitida se estima que se podría ofrecer una imagen más acorde al perfil del municipio en cuanto a alturas y volúmenes, evitando la presencia de esos grandes muros que en algunos puntos llegan a alcanzar más de 22 metros de altura.
3. Vista la volumetría del edificio, la proximidad a nuestra parcela y el volumen ocupado por nuestro edificio, resulta evidente que no ha habido ningún tipo de estudio con el fin de armonizar el perfil anteriormente mencionado.
4. Actualmente el cierre de la parcela, en la zona colindante a nuestra parcela (Caserío Txaparren-berri), se resuelve con un muro de mampostería.




Usurbilgo Udala

A la vista de lo anteriormente expuesto, solicitamos que se revise la alineación de los sótanos en la zona sureste de la parcela (junto al caserío Txaparren-berri), retranqueándolos de forma que se adapten mejor a la orografía del terreno y guarden un retiro mayor al límite de la parcela. Así mismo, solicitamos que se mantenga el muro de mampostería existente en el cierre junto a nuestra parcela o, en caso de sustitución, que se resuelva dicho cierre con un elemento opaco que mantenga o mejore las condiciones del cierre actual en cuanto a vistas y altura.

Usurbil, a 25 de marzo de 2019

Fdo. Milagros Iribar Añorga



## **DOKUMENTU BERRIA**

MATIA FUNDAZIOAK, 2019ko maiatzaren 13an, udal arkitektoaren alegazioa aztertu ostean, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetako Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Aldaketa behin betikoz onartzeko dokumentu berria, egokitua, aurkeztu du.

## **TXOSTEN TEKNIKOA**

Tartekatutako alegazioa eta dokumentu berria aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, 2019ko maiatzaren 13an honako txostena eman du:

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate jaunari**  
**PLANEAMENDUA**  
**A.96/A.97 MIRAVALLE PLAN BEREZIAREN ALDAKETA**  
**DOKUMENTUARI TXOSTENA**



Usurbilgo Udala

---

KOKAPENA: A-96/A-97 EREMUAK, Usurbil.  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.01/2018-0641

---

) 1. AURREKARIA

- 2018ko abuztuaren 1ean REHABITE AHOLKULARITZA TEKNIKO A SLP enpresak MATIA FUNDAZIOA-ren izenean A.96/A.97 MIRAVALLE PLAN BEREZIAREN ALDAKETA dokumentua aurkeztu zuen, HZ.01/2018-0408 Espedientearen baitan.
- 2018ko abenduaren 3an interesatuak Plan Bereziaren Aldaketa dokumentu berria aurkeztu du.
- 2019ko otsailaren 8an interesatuak Plan Bereziaren Aldaketa dokumentu berria aurkeztu du.
- 2019ko otsailaren 8an udal arkitektoak ALDEKO txostena idatzi zuen, besteren artean honakoak esanaz:

- ANTOLAMENDUARI BURUZKOAK:

- aparkaleku kopurua: GUZTIRA= 64 plaza.
  - X Aparkalekuak partzela pribatuan: eraikin barruan 4 plaza/ kanpo urbanizazioan 20.
  - X Aparkalekuak partzela publikoan: 44 aparkaleku.

Lursail pribatuan 24 aparkaleku plaza kokatu dira guztira eta hasera batean kopuru urria dela dirudien arren (10.472 m<sup>2</sup>-ko eraikin bati zerbitzu emateko), dokumentuan bertan justifikatzen da finkatzen den erabilera asistentzialerako nahikoa direla. Edonola, behean izenpetzen duenaren ustez, kopuru horrek izaera gutxienekoa izan beharko luke eta eraikuntza eta urbanizazio proiektuetan lursail pribatuan aparkaleku plaza gehiago ateratzeko ahalegina egin beharko litzateke.
- eraikinen lerrokadurak: O.05 planuan finkatu dira izaera gehienekoarekin. Behean izenpetzen duenaren ustez, N-634-ak eraikuntzan izango duen eragina ikusita, errepide aldera ahalik eta gutxien gerturatu beharko litzateke eraikinaren lerrokadura. Eraikuntza proiektuan ahalegin hori egitea eskatzen da.
- eraikinen profila eta altuerak: dokumentuaren memorian eta hirigintza arauetan ekipamendu publikoaren 2S+BS+III eta ekipamendu pribatuarentzat S+ES+BS+III gehieneko profilak finkatzen dira. O.06.1, O.06.2 eta O.06.3 planuetan jaso dira bolumenei (profila+ altuera) dagozkien lerrokadura gehienekoak. Behean izenpetzen duenaren ustez, N-634-ak eraikuntzan izango duen eragin akustikoa eta eraikuntzak hegoalderuntz izango duen eragin bisuala ikusita honakoak:
  - X errepide aldera ahalik eta gutxien gerturatu beharko litzateke eta errepide alderako maldan hegalak agertzea saihestu.
  - X Azken solairuaren altuera gutxitu beharko litzateke, punturik bajeanean 2,5 m-ko altuera librean nahikoa izan behar luke. Errepide aldera eta baita Kalezar aldera zein eremuko espazio publikoetara duen inpaktu bisuala gutxituz. Eraikuntza proiektuan ahalegin hori egitea eskatzen da.
- lurzoru publikoaren gainean portxea: Indarrean diren AASSTB-ren arabera, zortasun publikoa duten azaleretan eraikitako portxeak ez



Usurbilgo Udala

dira konputagarriak eraikigarritasunaren arabera. Hau horrela izanik, estalki horrek gunek publikorako erabilera izan beharko du.

(...)

- INGURUMEN EBALUAKETA SINPLIFIKATUA: Ezinbestean Gipuzkoako Foru Aldundiaren ebazpenean ezarritako baldintzak bete beharko dira.
- ERREPIDE SAILAREN TXOSTENA: Ezinbestean jaso beharko da Errepide Sailaren aldeko txostena behin betiko onespina jaso aurretik.
- AZTERKETA AKUSTIKOA ETA BABES BEREZIKO GUNE AKUSTIKOAREN (ZPAE) AITORPENA: Aurkeztu den Plan Bereziaren Aldaketa dokumentuak Eragin Akustikoaren Azterlana jasotzen du. Bertan, honakoa esaten da ondorioetan:

*“Se ha analizado la contribución de focos de ruido y se comprueba que la carretera N-634 es el principal generador de ruido. Por lo que para reducir los niveles de ruido se analiza la reducción de la velocidad de la carretera N-634 a 30 km/h, pero a pesar de disminuir los niveles de ruido en fachada siguen superándose los OCA establecidos en las fachadas orientadas hacia la N-634. Esta solución será planteada a la Diputación Foral de Gipuzkoa, gestor de la misma, para su valoración y posible ejecución.*

*Se descartan otras soluciones, por lo que no es posible cumplir los OCA aplicable en el exterior con medidas técnicamente viables, por lo que para poder conceder la licencia de edificación, será necesario que, en ese momento, se encuentren dentro de una ZPAE, en cumplimiento del artículo 43 del Decreto 213/2012. “*

Hori dela-eta, **etorkizunean eremu honetan Udalak dagokion eraikuntza baimenak ematea ahalbidetu dadin, Babes Bereziako Gune Akustikoaren (ZPAE) Aitorpenerako dokumentua aurkeztu beharko da, Udalak izapidetu**

- 2019ko otsailaren 11ean udal aholkulari juridikoaren txostena.
- 2019ko otsailaren 21ean Alkatetza Dekretua Plan Bereziaren aldaketa haserako onetsiz.
- 2019ko martxoaren 1ean iragarkia GAO-n, jendaurreko erakustaldia 20 lanegunez irekiaz.
- 2019ko martxoaren 27an Milagros Iribar Añorga andereak alegazioa tartekatu zuen.
- 2019ko maiatzaren 7an bertaratzea egin da Milagros Iribar eta dokumentuaren erredaktoreekin.
- 2019ko maiatzaren 13an REHABITE arkitektoek ale berria aurkeztu dute.



Usurbilgo Udala

) Erlazionatuak:

)

HZ.01 / 2018 – 0408 Ingurune-dokumentu estrategikoa Miravalles Komentuko Hiri Antolamenduko Plan Berezia aldatzeko: A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua)

HZ.01 / 2010 – 0066 Miravalles Komentuko Hiri Antolamenduko Plan Berezia: A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua)- Usurbilgo Udalbatzaren erabakia PERIa behin betikoz onartuz: 2010-06-30

HZ.06 / 2019 – 0245:A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua). Babes Akustiko Bereziko Eremuen (BABE) izendapena : 2019-04-12an aurkeztu da.

) **2. TXOSTENA**

Aurrekarietan azaldu bezala Miravalles Komentuko Hiri Antolamenduko Plan Berezia: A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua)-ren Aldaketa haseraz onartu zen otsailaren 21ean, baldintzekin. Horrekin batera, jendaurreko erakustaldian Milagros Iribar Añorgak alegazioa jarri zuen.

Alegazioak eta baldintzak aztertuta eta emandako urratsak ikusita honakoak esan daitezke:

1. MILAGROS IRIBAR AÑORGA ANDEREAREN ALEGAZIOA ONARTZEA:

Milagros Iribar andereak ezarritako alegazioan, laburbilduz, honakoak eskatzen dira:

1. Sotoen lerrokadurak berraztertzea Txaparren-berri baserriaren alboan, hego-ekialdera, lurraren orografiari hobekiago egokituz eta partzelaren mugarekiko erretira handiago izanik.
2. Egun bertan dagoen harri-horma, partzelaren mugan dagoena, mantentzea edota egungo itxituraren baldintzak hobetzea bista eta altuerari dagokionean.

Egin diren eskaera aztertuta, behean izenpetzen duen teknikariak esan beharra dauka horiek betetzea egokituz ematen duela, izan ere, haserako onespenerako dokumentuari egindako txostenean udal teknikari honek esandakoekin bat datoz (ikus 2019ko otsailaren 8ko txostenean “Antolamenduari buruzkoak” atala).

Gauzak horrela, dokumentuaren erredaktoreei alegazio eskaera aintzat hartu eta lerrokadurak atzeratzeko ahalegina eskatu zaie, baita murua mantentzeko aukera aztertzea ere. Horrela, REHABITE arkitektura taldeak proposamen berri bat marraztu du lerrokadurei dagokionean (haserako onespenerako dokumentuan finkatutakoarekiko atzeratuz Txaparren Berri baserri albora ematen duen soto lerrokadura) eta bilkura egin da alegazioa jarri duen





Usurbilgo Udala

Milagros Iribar anderearekin hura aurkeztu eta haren iritzia jasotzeko. Bilkura ostean bertaratzea egin da.

Bilkura horretatik ateratako ondorioak dira:

- orain aurkeztu den proposamena ontzat hartu dute interesatuek sotoen lerrokadurei dagokionean.
- harri-horma mantentzea erabaki da eta Txaparren berri-ra doan bidean espaloia eta partzela pribatuaren mugak egokitzea kontuan izanik bide hori dela bertakoak oinezkoentzat duten bakarra Kalezar-era igotzeko. Dena dela, halako xehetasunak berriro ere Urbanizazio Proiektuan aztertzekotan gelditu dira.

Maiatzaren 13an Plan Bereziaren Aldaketaren ale berria aurkeztu da eta bertan txertatu dira lerrokaduren aldaketak (oin planoan eta altueran) eta baita harri-hormaren mantentzea eta espaloia konfigurazio berria.

2. INGURUMEN EBALUAKETA-RI GFA-K EZARRITAKO BALDINTZAK DOKUMENTUAN BARNERATZEA: Behin betiko onspena emateko aipatu baldintzak dokumentuan barneratu dira.
3. ERREPIDE SAILAREN TXOSTENA: Udalbatzak dokumentua behin betiko onartzeko Errepide Sailaren aldeko txostena beharko da.
4. BABES BEREZIKO GUNE AKUSTIKOAREN (ZPAE) AITORPENERAKO DOKUMENTUA AURKEZTEA: Aurkeztu da eta Udalak haren izapidetzea martxan jarri du. Ikus HZ.06 / 2019 – 0245 espedientea.

Edonola, hauek dira Haserako Onspena eman zitzaion dokumentuari ontzat ematen zaizkion aldaketak eta gainontzean Behin betiko Onspena dokumentu berak izango du.

### 3. ONDORIOAK

Goian esandakoari jarraiki, txosten honek aztertutako alderdiei ALDEKO txostena idazten zaie, goian aipatutako baldintzekin.

Gainontzeko puntuetan aurreko txostenean esandakoak berresten dira.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe. Udalari jakinarazten zaiona dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2019ko maiatzaren 13an  
UDAL ARKITEKTOA/ HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA  
SAILEKO BURUA  
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune



Usurbilgo Udala

## **BIDE AZPIEGITURETAKO DEPARTAMENTUAREN TXOSTENA**

2006ko ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arau-emaileak, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratua onartzekoak, 94. artikuluan xedatutakoaren arabera, dagokion txostena eskatu zitzaion Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuari.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak jakinarazi du ez duela eragozpenik ikusten dokumentua onartzeko.

Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendari Nagusiak 2019ko maiatzaren 14an helarazitako txostenak honakoa dio hitzez hitz:

### **USURBILGO MIRAVALLE 96/97 AREAREN HIRI ANTOLAKETAKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETARI BURUZKO TXOSTENA**

Usurbilgo Udalak Miravalle 96/97 arearen hiri antolaketako plan bereziaren aldaketa bidali du, Bide Azpiegituretako Departamentuak irizpena eman dezan, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratuak, 2006ko ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arau-emaileaz onartutakoak, 94. artikuluan agintzen duena betez.

2010ean, Departamentu honen oniritzia jaso ondoren, Usurbilgo Udalak behin betiko onartu zuen A.96/A.97 Miravalle eremuaren Hiri Antolamendurako Plan Berezia (HAPB), "A.96 Portalmusu" eta "A.97 Komentua" eremuak elkartuta sortu den eremu berria, hain zuzen.

Planaren xedea da Miravalle komentuko partzelek osatzen duten eremuaren antolaketa xehatua definitzea. Herrigunearen goialdean dago eremua, N634 errepidearen aldamenean, eskuinaldean, 2,730 eta 2,860 k.p.en artean.

MATIA FUNDAZIOA da plan honen sustatzailea.

Helburua da Zentro Gerontologiko bat eraikitzea, beste ekipamendu publiko bat gauzatzea, hirigune historikoaren aldamenean gun e libre bat (plaza) eta aparkaleku bat izateko. Gainera, arkitektura oztupoak kenduko direla bermatu behar da. Horretarako:

- a) Zentro Gerontologikorako ekipamendu pribatua eraikitzeko lursaila sortzea.
- b) Berdeguneak eta gun e libreak sortzea.



Usurbilgo Udala

- c) Gainazalean aparkaleku plazak sortzea Belmonte kalean zehar eta eremuaren iparraldean dagoen aparkalekuan.
- d) Esparru egokia gordetzea bertan beste autobus geltoki bat eraikitzeko N-634 errepidearen oinetan, bai eta igogailuak edo antzeko sistema bat ere geltokitik Kalezar auzora igotzeko, dagoen 22 metro inguruko desnibela gaindituz.
- e) Ekipamendu publikoa ezartzeko lursaila sortzea.

N-634 errepidean bazterbidea egitea aurreikusi da, autobus geralekua eta espaloia jartzeko. Leku hori eraikinekin lotzeko, bi igogailuz eta zaldainez osatutako sistema bat diseinatu da, oztopo arkitektonikoak eta orografikoak ezabatzeko.

Area akustikoetan eta aurretik zeuden bide azpiegiturek eragindako zortasun akustikoko eremuetan, non inmisio mailak izan baitaitezke handiagoak kalitate akustikoaren helburuak baino, pertsona fisiko edo juridiko sustatzaileak edo, bestela, udalak (lizentzia emateko eskumena duen aldetik), ardura du behar diren neurriak hartzeko, bere jarduera eremuaren diseinuan, inguruan edo fatxadan, kalitate akustikoaren helburuak lortzen direla bermatzeko, barruan eta kanpoan, indarrean dagoen legediari eta garapen dekretuei jarraikiz. Ardura honekin ez betetzea ezingo zaio leporatu, ez une horretan, ez etorkizunean, azpiegituraren titularra den administrazioari.

Agiria aztertu ondoren, Departamentuaren eskumeneko gaiei dagokienez ez dugu eragozpenik ikusten onarpena emateko.

#### PLANGINTZA ETA USTIAPEN UNITATEKO BURUA

Jesus Maguregi Arregui

Bide Azpiegituretako Departamentuko Kudeaketa eta Plangintzako zuzendari nagusiak bere egiten du irizpen hau, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratuak, 2006ko ekainaren 6ko 1/06 Foru Dekretu Arauemaileaz onartuak, 94. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Donostia, 2019ko maiatzaren 10a

#### KUDEAKETA ETA PLANGINTZAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Mikel Uribetxebarria Barrena

Guzti hau kontutan izanik, Hirigintza Batzordeak, 2019ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Xabier Arregi, Jone Urdanpilleta eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, eta Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:



Usurbilgo Udala

## ERABAKIA

**LEHENENGOA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetako Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Aldaketaren hasierako onespenerako dokumentuari aurkezturiko alegazioa honelaxe erantzutea:

1. alegazioa

Sarrera data-zenbakia: 2019-03-27/1059

Interesatua: Milagros Iribar Añorga

Alegazioa AINTZAT HARTZEA udal arkitektoak 2019ko maiatzaren 13an emandako txostenean zehaztutako eran.

**BIGARRENA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetako Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Aldaketa (2019 maiatza) BEHIN BETIKOZ onartzea.

**HIRUGARRENA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetako Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Aldaketa Foru Aldundira igortzea, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin.

**LAUGARRENA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetako Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Aldaketaren behin betiko onspena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hirigintza-plana Foru Aldundiko hirigintza plangintzaren erregistro administratiboan jaso dela aipatuz.

**BOSGARRENA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetako Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

Alkateak, behin plana behin betikoz onartu dela aprobetxatuta, adierazi du aldi berean beste dokumentu batzuk lantzen aritu direla eta jarraian hemendik aurrera zein pauso aurreikusten dituzten azaldu du.



Usurbilgo Udala

Batetik, Matiaren eta Udalaren arteko hitzarmen bat dagoela adierazi du, teknikoki Kontzertazio-hitzarmena dena. Bertan bi erakundeek konpromiso batzuk hartzen dituztela dio proiektu honen exekuzioari begira.

Bestetik, tramitazio urbanistikoaren hurrengo pausoa “Plan de actuación urbanizadora” PAU esaten dena izango litzatekeela dio. Hor hemendik aurrerako ibilbide guztia markatzen dela esan du eta hori ere aurkeztuta dagoela azpimarratu du.

Batzarkideei jakinarazi die berez prozesuak eskatzen duela bai hitzarmena eta baita PAUa hasieraz alkate dekretuz onartzea, gero erakusketa publikoko aldi bat eta ondorenean Udalbatzak behin betikoz onartzea. Hau horrela eta gaiari azkartasuna emateko bere asmoen berri eman die batzarkideei. Hau da, hemendik aurrera, korporazio berria iritsi bitartean, alkatearen asmoa dela dio bai hitzarmena eta baita PAUa alkate dekretuz onartzea. Ondoren, hurrengo legealdiko korporazioak Udalbatzarrean behin betikoz onartu beharko dituela dio bi instrumentu urbanistiko horiek.

Alkateak gaineratu du, aldi berean, Foru Aldundiarekin lanean ari direla eta momentu honetan Jarduketa Protokolo bat eskuartean dutela. Aldundiko Gizarte Zerbitzuen eta Usurbilgo Udalaren arteko hitzarmen moduko bat dela dio non elkarrekin konpromisoak hartzen dituzten, batez ere, batetik, eraikin edo ekipamendu horretara iristeko autobus geltoki berria eta igogailua finantzatzeko eta, bestetik, adineko pertsonen asistentzia integralerako. Dokumentu hau Udalak sinatu duela eta momentu honetan Foru Aldundiaren eskuetan dagoela jakinarazi du, Maite Peña foru diputatuak sinatu dezan.

Jarraian, alkateak hitza eman die publikoan daudenei.

Publikotik, Damaso Lizaso Jubilatuen elkarteko kideak hitza hartu du eta eskerrak eman dizkie bai Juntari eta baita Udalari ere puntu honetaraino iristeagatik.

Bestalde, erabaki honen kopia bat eskuratu nahiko luketela adierazi du.

Alkateak erantzun dio gaurko erabaki honen berri Jubilatuen elkarteei emango zaiela.

## **9.- HAASETAKO A-59 (UGARTONDO) EREMUAREN GARAPENAK ERAGINDA, KALE IZENDEGIA EGUNERATZEA BOST KALE BERRI SORTUZ.**

Alkateak azaldu du Ugartondoko eremuan etxebizitza promozio bat doala eta bertan kaleak sortuko direla. Gaineratu du komeni izaten dela kaleak lehenbailehen izendatzea nahasketarik gerta ez dadin.

Bestalde, kale horietako batzuetan lehendik Sakabanatuak bezala izendatuta daudenek kale berriaren izena hartuko dutela zehaztu du.




Usurbilgo Udala

Batzarkideek, Hirigintza Batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta gehiengo onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.06/2019-0168

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuaren garapenak bost kale berrien sorrera eragingo du.


Udal aparejadoreak inguruko toponimoak aztertu ostean, kale berriei honako izenak ematea proposatu du: Ugarte kalea, Lakizar kalea, Pikaola kalea, Latsari kalea eta Arponari kalea.



Era berean, kale berrien sorrerak, lehendik inguruan zeuden bost eraikinen helbideak aldatzea eragin du. Udal aparejadoreak egindako txostenean jasotzen denez, kale berrien ondorioz kale izendegian egin beharreko aldaketak ondokoak dira:

**EGUNGO HELBIDEA**

**HELBIDE BERRIA**



Usurbilgo Udala

Etxea	Kalea	Zkia.	Kalea	Zkia.
Iparralde etxea	Kalezar sakabanatuak	17	Ugarte kalea	3
Haur eskola	Kalezar sakabanatuak	15	Ugarte kalea	9
Ugarte baserria	Kalezar sakabanatuak	16	Ugarte kalea	4
			Lakizar kalea	4
			Lakizar kalea	6
			Lakizar kalea	8
			Pikaola kalea	2
			Pikaola kalea	4
			Pikaola kalea	6
			Pikaola kalea	8
			Latsari kalea	2
			Latsari kalea	4
			Latsari kalea	6
			Arponari kalea	1
			Arponari kalea	3
			Arponari kalea	5
	Kalezar sakabanatuak	20	Arponari kalea	4
Etxeberrit txiki	Kalezar sakabanatuak	21	Arponari kalea	6

Guzti hau kontutan izanik, Hirigintza Batzordeak, 2019ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Xabier Arregi eta Jone Urdanpilletaren aldeko botoekin eta, Mirari Azurmendi eta Fermin Orue-Echevarriaren abstentzioarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuaren garapenak eraginda, kale izendegia segidan zehazten den eran eguneratzea:

- Azalpenetan jasotako planoaren arabera, bost kale berri sortzea: **Ugarte kalea, Lakizar kalea, Pikaola kalea, Latsari kalea eta Arponari kalea.**



Usurbilgo Udala

- Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) Eremuko eraikin berriak kale izendegian jasotzea:

#### HELBIDE BERRIAK

Eraikina	Kalea	Zkia
A-59 (Ugartondo) partzela E	Lakizar kalea	4
A-59 (Ugartondo) partzela E	Lakizar kalea	6
A-59 (Ugartondo) partzela E	Lakizar kalea	8
A-59 (Ugartondo) partzela A	Pikaola kalea	2
A-59 (Ugartondo) partzela B	Pikaola kalea	4
A-59 (Ugartondo) partzela C	Pikaola kalea	6
A-59 (Ugartondo) partzela D	Pikaola kalea	8
A-59 (Ugartondo) partzela F	Latsari kalea	2
A-59 (Ugartondo) partzela F	Latsari kalea	4
A-59 (Ugartondo) partzela F	Latsari kalea	6
A-59 (Ugartondo) partzela G	Arponari kalea	1
A-59 (Ugartondo) partzela G	Arponari kalea	3
A-59 (Ugartondo) partzela g	Arponari kalea	5

- Kale berrien sorreraren eraginez ondoko helbideak berritzen dira:

#### EGUNGO HELBIDEAK

#### HELBIDE BERRIAK

Etxea	Kalea	Zkia.	Kalea	Zkia.
Iparralde etxea	Kalezar sakabanatuak	17	Ugarte kalea	3
Haur eskola	Kalezar sakabanatuak	15	Ugarte kalea	9
Ugarte baserria	Kalezar sakabanatuak	16	Ugarte kalea	4
	Kalezar sakabanatuak	20	Arponari kalea	4
Etxeberri txiki	Kalezar sakabanatuak	21	Arponari kalea	6

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri kale izendegia daraman Udal langileari ematea, berau eguneratu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera bidali dezan.





Usurbilgo Udala

**HIRUGARRENA:** Eguneratu ostean Kale izendegia jendaurrean jarriko da eta helbidea alda den etxebizitza guztietara jakinarazpen bat igorri da aldaketaren berri emanez.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

#### **10.- ZUMARTE MUSIKA ESKOLA BIRGAITU ETA HANDITZEKO CONSTRUCCIONES MOYUA, SL ENPRESAREKIN IZENPETUTAKO OBRA KONTRATUA ALDATZEA, PREZIO KONTRADIKTORIOAK ONARTUZ.**

Alkateak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

Zumarte Musika Eskola birgaitzeko obrak aurreko udazkenean hasi zirela adierazi du. Bestalde, birgaitze obrek zailtasun puntu bat izaten dutela esan du, askoz errazagoa izaten dela dio berria eraikitzea zaharra berregokitzea baino. Halere, ondarearen aldetik eta ingurua zaintzearen aldetik, hori horrela egitea egokiagoa iruditu zitzaieला azpimarratu du.

Jarraian, gertatutakoa azaldu du. Moyua birgaitzeko obrak egiten hasi zenean, konturatu omen ziren eraikin zaharreko paretak uste baino okerrago zeudela. Hor negoziazio luze bat egon dela esan du batetik enpresaren eta bestetik obra zuzendaritza eta Udalaren artean. Prezioetan eta ados jartzea kosta egin dela, baina azkenean adostasuna lortu dela esan du eta enpresa prezio kontradiktorioekin ados agertu dela.

Bestalde, atzerapen batzuk sortu direla eta enpresak galdetzen duela dio horiekin zer. Alkateak jakinarazi du kontu hori erabaki honetatik kanpo geratzen dela eta aurrerago erabakiko dela.

Batzarkideek, Hirigintza Batzorde informatzailearen irizpena azertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Epediente zkia: ID.05/2017-0483

#### AURREKARIAK



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2018ko martxoaren 5ean egindako ezohiko bilkuran onartu zen Zumarte Musika Eskola birgaitu eta handitzeko obra kontratua esleitzeko prozedura irekia. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal Kontratatzaile Profilean 2018ko martxoaren 8an iragarkia argitaratu zen.

Kontratua CONSTRUCCIONES MOYUA, SL. enpresarekin sinatu zen 2018ko ekainaren 28an, eta zuinketa akta aldiz 2018ko abuztuaren 2an. Esleipen prezioa 1.637.371,09 euro izan ziren (%21eko BEZ barne 1.981.219,02 euro).

Kontratuaren exekuzioan zehar sortu diren beharrak direla eta Obra Zuzendaritzak prezio kontradiktorioak onartzeko proposamena egin du maiatzaren 10eko txostenaren bidez. Txosten horren arabera, jatorrizko fatxadetako hormetan agerian ipini dira hainbat gabezia eta aldaketa horrek ez lukete proiektuaren aldaketarik eskatuko.

#### APLIKAGARRIA DEN LEGEDIA


- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua, azaroaren 14ko 3/2011 Dekretu legegilearen bidez onartua
- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 legea partzialki garatzen duena.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.
- Urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea.

Kontratu honetako **plegu administratiboetako 19. klausulak** zera dio:

*“Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du, interes publikoko arrazoiengatik, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginaren I. Liburuaren V. Tituluan aurreikusitako kasuetan eta eran.*

*Ustekabeak izanez gero, kontratuaren aldaketek, erabaki direnak Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 107. artikuluan xedatutakoaren arabera, ezingo dituzte aldatu lizitazioaren eta adjudikazioaren oinarritzko baldintzak, eta sartu beharko dira ezinbestekoak baino ez diren aldaketak, beharrezko egiten duen kausa objektiboari erantzuteko.*

*Ulertuko da kontratuaren lizitazioaren eta adjudikazioaren oinarritzko baldintzak aldatzen direla, beste kasu batzuen artean, kontratuaren aldaketek berdintzen edo gainditzen dutenean, goitik edo behetik, kontratuaren adjudikazio prezioaren ehuneko 10; hurrengo aldaketak egiten direnean, horiek ezingo dute gainditu muga hori.”*



Usurbilgo Udala

**Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Dekretu legegileko 107. artikuluan erregulatzen dira aurreikusi gabeko aldaketak eta 107.1.b artikulua jasotzen ditu esleipenaren ondoren agerturiko eta aurreikusi ezin zitezkeen inguruabar ezberdinek eragindakoak. Kasu hauetan, 107.2 artikulua dioenaren arabera, ezin izango ditu lizitazioko eta esleipeneko oinarritzko baldintzak aldatu. Kasu honetan, esleipen prezioarekiko aldaketa 48.449'51 euro (+ %21eko BEZ barne 58.623,91 euro) dira, %2,96 (107.3.d gainditu gabe).**

Aldaketa horretarako prozedura SPKLTB-ko 108.2, 234.2 eta 1098/2001 Kontratuen Erregelamenduko 102 eta 158 artikuluek erregulatzen dute, proiektuak jasotzen ez diren obra unitateak diren heinean.

Hori dela eta, azaroaren 28ko 2568/1986 Dekretuak onartzen duen Toki Erakundeetako antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Erregelamenduan (ROF delakoa), 175. artikuluan ezarritakoaren arabera, Pertsonal eta Kontratazio Teknikariak, Olatz De Miguel Arnaiz andereak eta udal idazkariak, Irantzu Arrizabalaga Gainza andereak, 2019ko maiatzaren 10ean emandako txostenean, kontratu honen organo eskudunari, kontratua aldatzeko proposatu diote.

Guzti hau kontutan izanik, Hirigintza Batzordeak, 2019ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Xabier Arregi eta Jone Urdampilletaren aldeko botoekin eta, Mirari Azurmendi eta Fermin Orue Echevarriaren abstentzioarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

## ERABAKIA

**LEHENA:** CONSTRUCCIONES MOYUA, SL. enpresari 1.981.219,02 eurotan esleituriko Zumarte Musika Eskola birgaitu eta handitzeko obra kontratua aldatzea.

**BIGARRENA:** 58.623,91ko gastua (%21eko BEZ barne) baimentzea eta gastu hau 1-6000-622-334-00-01 (AD 2019-914) kontu-sailaren kontura finantzatzea.

**HIRUGARRENA:** Enpresa horri esleitzea aldaturiko kontratuaren zatia eta 10 egun balioduneko epea ematea kontratuaren bermea handitu dezan (2.931,20 euro) eta ondoren aldaketaren formalizazioa sinatu dezan.

**LAUGARRENA:** Kontratuaren formalizazioa udaleko Kontratatzailearen Profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**BOSGARRENA:** Erabaki honen berri CONSTRUCCIONES MOYUA, SL. enpreari, Hirigintza eta Kontuhartzailatza sailei ematea."

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren



Usurbilgo Udala

Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Abstentzia: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

## **11.- GALDERA-ESKAERAK.**

Ez dago ez galdera ez eskaerarik.

Alkateak adierazi du igandeko hauteskundeetatik aurrera udala funtziotan geratzen dela, beraz, gaurkoa izango dela erabaki esanguratsuak hartzeko azken aukera. Halere, ekainaren 12an azken batzarrak (Batzorde informatzaile, Tokiko Gobernu Batzarra eta Udalbatzarra) egingo direla jakinarazi du baina soilik azken aktak onartzeko.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:40an eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**